



Irekibai

Interreg
POCTEFA
H2Ogurea



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

BILERA AKTA – Jardunaldia, H2Ogurea mugaz gaindiko proiektua aurkezteko eta IREKIBAI proiektuaren jarraipena egiteko; gure ibaien etorkizuna elkarrekin eraikitzea

H2Ogurea mugaz gaindiko proiektuak koordinaziopean kudeatu nahi ditu mugaz gaindiko ibaiak: Bidasoa, Urdazuri eta Urumea (EFA062/15)

LIFE IREKIBAI proiektua. **Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza. (LIFE 14 NAT/ES/00186)**

<p>EGUNA: 2017ko martxoaren 22a LEKUA: Bertizko Jaurerriko P.N</p> <p>HASIERA: 17:30 BUKAERA: 19:30</p>	<p>HELBURUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> H2Ogurea mugaz gaindiko proiektu berriaren ekintzak aurkeztea, bai eta LIFE IREKIBAI proiektuan orain arte egindako lanen emaitzak ere. LIFE IREKIBAIko partaidetza publikoaren prozesua zabaltzearen aurkezpena, H2Ogurea proiektua barne
---	---

Bertaratuak: 50 lagun

Izena	A Abizenak	Erakundea	Kargua	L Herria
Ignacio	Agerrea	Asoc Aguas y Fomento Iturri-Ederra	Presidentea	Elizondo
Luis Miguel	Lameriñas	Asoc Aguas y Fomento Iturri-Ederra	Presidenteordea	Elizondo
Ana	Urtasun Idiazabal	Nafarroako Ingurumen Zientziako Lizentziatuen Elkarte		Iruña
Juan Miguel	Almandoz Michelena	ARANTZAKO UDALA	Alkatea	Arantza
Mikel	Ortega Arraztoa	BAZTANGO UDALA	Alkatea Baren Araubidea	Elizondo
Josu	Iratzoki Agirre	BERAKO UDALA	Alkatea	Bera
Andres	Etxenike Iriarte	BERTIZARANAKO UDALA	Alkatea	Narbarte
María Teresa	Urroz Oyarzábal	DONAMARIAKO UDALA	Alkatea	Donamaria
Marga	Erdozain Azpilicueta	DONEZTEBEKO UDALA	Alkatea	Doneztebe
Miguel M ^a	Irigoyen Sanzberro	ETXALARKO UDALA	Alkatea	Etxalar
Unai	Loiarde Ansa	GOIZUETAKO Udala	Alkatea	Goizueta
Xabier	Sarasola	IGANTZIKO UDALA	Zinegotzia	Igantzi
José Luis	Echegaray Andueza	LESAKAKO UDALA	Alkatea	Lesaka
Xebe	Txoperena	LESAKAKO UDALA	Alkatea	Lesaka
Ester	Fernandez Casas	SUNBILLAKO UDALA	Zinegotzia	Sunbilla
Santiago	Villares Otegy	URDAZUBIKO UDALA	Alkatea/sa	Urdazubi
Ernesto	Domínguez Olea	ZUBIETAKO UDALA	Alkatea	Zubieta
Iñigo	Ballarena Galarregui	Balga Energiak, S.L. Asociado de URWATT.	Gerente	Elizondo
Mariam	Cestau	CEDERNA-GARALUR Bortzirriak-Malerreka-Bertizarana garatzeko Agentzia		Elizondo
Martín	Apecechea Iribarren	Baztango ehiztarien eta arrantzaleen kirol elkarte		Ornoz Mugairi
Itziar	Almárcegui Artieda	BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA		Iruña
Mathilde	LARQUIER	Euskal Hirigune Elkargoa	Ingénieur qualité de l'eau - Pôle Eau & Environnement	URRUNA (LAPURDI-FRANTZIA)
Chloé	SEGURA	Euskal Hirigune Elkargoa	Chargée des affaires transfrontalières	URRUNA (LAPURDI-FRANTZIA)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Communauté
d'AGGLOMÉRATION
PAYS BASQUE

EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



SERVICIOS DE TXINGUDI



LE DÉPARTEMENT



ETABLISSEMENT PUBLIC DU MINISTRE
DE L'ÉQUIPEMENT DURABLE



AYUNTAMIENTO
DE
URDAX
(Navarra)

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.



Irekibai

Interreg
POCTEFA
H2Ogurea



Eva	García Balaguer	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua. Nafarroako Gobernua	Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia.	Iruña
José	Ardaiz	Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzua.	Arrantza Kudeatzeko Bulegoko burua	Iruña
Cesar	Pérez Martín	Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzua. Nafarroako Gobernua	Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzuko zuzendaritza	Iruña
Nekane	Vizcay Urrutia	Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzua. Nafarroako Gobernua	Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Ataleko burutza.	Iruña
Iker	Azpiroz	EKOLUR Ingurumen Aholkularitza		Oiartzun
Manu	Rubio	EKOLUR Ingurumen Aholkularitza		Iruña
Luis	Sanz Azcarate	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Irekibai Proiektuaren koordinatzailea	Iruña
Ana	Varela Álvarez	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Proiektuetako teknikaria	Iruña
Eva	Zaragüeta	Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Proiektuetako teknikaria	Iruña
Eva	Bravo Barrera	Ingurumen Kudeaketa eta paisajismoa	Biologoa eta paisajista	Sarriguren
Xabier	Petrirena	Ingurumen zaintza. Bidasoa-Leitzako Baso Mugaketa	Basozaina	Oieregi
Maite	Arzuaga	TOKI ONA BHI BERA	Irakaslea	Bera
Juan	del Barrio Iglesias	LURRA. Lurraren aldeko Elkarte. Nafarroako Ingurumen Kontseilua		Burlata
Gabriel	Berasategui Echavarria	Ornitolan Servicios Ambientales-Ingurumen Zerbitzuak		Iruña
Iosune	Ibarra Santxotena	Ostaitz S.L.	Arreta erabilera publikoari	Oieregi
Mónica	Migueltoarena	Ostaitz S.L.	Arreta erabilera publikoari	Oieregi
Alfonso	Mendiberri Orquin	Pescador		Doneztebe
Miren Gurutze	Pérez Eslava	Ribereño/a		Iruña
Amaya	Ruiz Irurita	Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko. Nafarroako Gobernua	Uholdeen aurkako eta Ibai Ingurune Jarduketan Bulegoko burua	
Miguel M ^a	Elosegui Iurrtia	Natur Ingurunearen Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala. Nafarroako Gobernua		Iruña
Goyo	Oyaregui	Natur Ingurunearen Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala. Nafarroako Gobernua	Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Ataleko burua	Iruña
Amaia	Angulo Rodeles	"SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Doktoretza tesia UNAn	Iruña
Vicente	Garro Lanz	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	Kidea	Bera
Juan	Otamendi Lasaga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte		Bera
Prudencio	Quiroga	Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte	Ingurumeneko kidea	Bera
Janet	Torrea Urbeltz	TRILUMAK. Gestión Ambiental y Paisajismoa	Lizentziaduna Biologian eta Ingurumen Zientzietan	Lintzoain
Rafa	Miranda Ferreira	Nafarroako Unibertsitatea	Ikerlaria. Zoologia eta Ekologia Departamentua	Iruña



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

Communauté
D'AGGLOMÉRATION
PAYS BASQUE

EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa



ura hazi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI



PYRENEES
ATLANTIQUES
LE DÉPARTEMENT



AGENCE DE L'EAU
ADOUR-GARONNE



AYUNTAMIENTO
DE
URDAX
(Navarra)

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.



Irekibai

Interreg
POCTEFA
H2Ogurea



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

Aztergaiak

Nafarroako Gobernuaren **ongiitorria**. *Eva García Balaguer*. Ingurumeneko zuzendari nagusia. Nafarroako Gobernua

H2OGUREA proiektuaren aurkezpena

- Proiektuaren laburpena eta jarduketak Nafarroan. *Luis Sanz Azcarate*. *Uraren arloa*. GAN-NIK
- Bidasoko **uholde arriskua** kudeatzeko Plana. *César Pérez Martín*. Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzua. Nafarroako Gobernua
- Ur edangarriaren hornidura segurtatzea (Urdazubi). *Santiago Villares*. *Urdazubi*

LIFE IREKIBAI Proiektuaren jarraipena egitea

Nafarroan egindako eta aurreikusitako ekintzak. *Nekane Vizcay Urrutia*. *Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Atala*. Nafarroako Gobernua; *Luis Sanz Azcarate*. *Uraren Arloa*. GAN-NIK; *Jose Ardaiz*. *Arrantza Kudeatzeko Bulegoa*. N.G.; *Miguel Mari Elosegui*. *Natur Ingurunearen Zerbitzua*. *Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala*

Partaidetza prozesua (Proiektuak: **LIFE-IREKIBAI** eta **H2Ogurea**). Ana Varela. GAN-NIK

Aurkezpenetako aztergaiak

Ongietorria

Bilera hasi, eta **Eva García Balaguerrek** hartu du hitza. **Ongietorria** eman die bertaratu diren guztiei, bai eta eskerrak ere. Azaldu du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Uraren Foroa bultzatu zuenetik Europako hainbat proiektu egin direla Kantariko arroetan. Proiektu horiek guztiek xede berbera dute, hots, aurrerapausoak ematea Europako hainbat zuzentarau Nafarroan ezartzeko: Urari buruzko Esparru Zuzentaraua, Habitategi buruzko Zuzentaraua eta Uholdeei buruzko Zuzentaraua, eta hori egin da partaidetza publikoaren bidez, horixe baita estrategia eta ekintza ildo horiek lurraldeetan ezartzeko tresna. Iragarri du jardunaldiaren helburua dela H2Ogurea mugaz gaindiko proiektu berriaren ekintzak aurkeztea, eta halaber, LIFE IREKIBAI proiektuan orain arte egindako lanen garapenaren eta emaitzen berri ematea. Esan du H2Ogurea proiektu berriari esker, arazo garrantzitsu bati helduko zaiola; hots, uholdeen arriskuari. H2Ogurea proiektuari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratu du Baztani emanen zaiola laguntza haren Udal Jarduketarako Plana ezartzeko. Gero, proiektuaren beste ekintza bat azaldu du, Urdazuri ibaiaren goi ibarra ur edangarriz hornitzeko xedea duena, Urdazubiko udalerrian ura gordetzeko gaitasuna handituz eta bertako banaketa sareak Euskal Hirigune Elkargoarekin lotuz. Bukatzeko, eskerrak eman dizkie bertaratu direnei, lagundu eta engaiatu direlako, betiere Europar Batasuneko ur kudeaketarako politikekin bat, uraren eta ibaien kudeaketan iraunkortasun eta eraginkortasun handiagorantz jotzeko.

H2OGUREA Proiektuaren aurkezpena

- **Luis Sanzek H2Ogurea Proiektuaren aurkezpena** egin du. Mugaz gaindiko ibaiak koordinaziopean kudeatzea du helburu: Bidasoa, Urdazuri eta Urumea. Azaldu du zein den jarduketa eremua, eta azaldu ere zein diren aurrekariak, bazkideak, aurrekontua, jarduketa aurreikusiak, etab. Gaineratu du proiektuaren erronka nagusia dela mugaz gaindiko arroak bere osoan ikusten laguntzea eta behar bezalako neurriak hartzea, Europako zuzentzarauk uraren kudeaketan dituzten helburuak betetzeko. Esan du H2Ogurea proiektuak ardatz hauek izanen dituela: uholdeen kudeaketa, ibaien kalitatearen hobekuntza, ura eraginkortasunez erabiltzea eta eskariaren kudeaketa sustatzea; eta horrekin batera, mugaz gaindiko trukeak sustatzea, toki guztietan uraren eta ibaien kudeaketa berdina eta bateratua egiteko.
- **César Pérezek** Bidasoa ibaiko uholde arriskua Kudeatzeko Plana aurkeztu du, Baztango Udalerrian zer lan egin eta eginen diren nabarmenduta. Azaldu du nolakoa den Baztango uholdeen aurkako larrialdi planaren eguneraketa, informatika eta komunikazio sistema berri bat ezarri baitzaio; horri esker,



Communauté
D'AGGLOMÉRATION
PAYS BASQUE

EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



PYRENEES
ATLANTIQUES
LE DÉPARTEMENT



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Ingurumen
Kudeaketa, S.A.



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.



Irekibai

Interreg
POCTEFA
H2Ogurea



UNIÓN EUROPEA
UNION EUROPÉENNE

Erratzuko neurtegi berriak ematen dituen datuak denbora errealean ere txertatuko dira, bai eta Auza mendian paraturiko plubiometroaren datuak ere, biek ere denbora errealean baitute komunikazioa. Sistemari esker, alertak emanen dira uholde arriskua dagoenean, eta Udalak larrialdi mailak abiaraziko ditu.

- **Santiago Villaresek** azaldu du zer lan egingen diren bere udalerrian, Urdazubi kalitatezko ur edangarriz hornitzeko. Lanaren zati bat Toki Administrazioak ordainduko du. Planaren arabera, uraren goi hornidurarako hodi bat egingen da ur edangarria auzo guztietara eramateko. Gainera, Otsondo mendiko ipar hegian dauden ur-hartuneak eta deribazio-arketak hobetu nahi dira, auzo bakoitzeko beheko sareak hornitzeko, eta hodi bat ere egingen da Lapitxuri errekaraino (Dantxarinear) Euskal Hirigune Elkargoa urrez hornitzeko.

LIFE IREKIBAI Proiektuaren jarraipena egitea

Hainbat teknikarik IREKIBAI Proiektuaren ekintzak aurkeztu dituzte eta, aurkezpen bakoitzaren ondotik, laburpen bat egin da Partaide Publikoaren bidez gai horiez egin diren proposamenen ebazpena nola doan azaltzeko.

- **Luis Sanzek LIFE IREKIBAI proiektua** zer den gogoratu du laburki: non jardun den, aurrekariak, helburuak, lege esparrua, bazkideak, aurrekontua, zer egin den, zer egin nahi den eta zer egiten ari den gaur egun, hala nola jada eraitsi diren presetako ibilguaren jarraipen geomorfologikoaren ekintzan hasitako lanak, edo emariak kontrolatzeko lanak; adibidez, Nazetako Zentralean erregeleta bat paratzea, bertan emari ekologikoa betetzen ote den ikusteko, beste lan batzuen artean.
- **Nekane Vizcayk** azaldu du zer egin den ibaietako oztopoak kentzeko, horrelakoak oso garrantzitsuak baitira Natura 2000 Sareko naturguneak kudeatzeko, eta horixe da jarduketa ildo nagusia Kontserbazio Bereziko ibai tipologiako Eremuak Kudeatzeko Planetan; zehazki, Berako eta Endarlatsako presak, 2016an eraitsiak. 2017an aurreikusitako eraispenez ere mintzatu da; hau da, Iturengoa (Ezkurra ibaian) eta oztopo txiki bat Txarutako errekan. Eta solasgai ere izan ditu Ibaiak Lehengoratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Atalaren baliabideekin egiten ari diren lanak, hala nola Bide Berdea konpontzeko lanak eta Zalain Zokoko presa eraisteko asmoa, Lesakan. Ondoren, aipatu du zertan den ibaiertzak lehengoratzeko ekintza, eta non ari diren lanean, eta aurrerago aukeratuko da zer toki zehatzetan jardun. Halaber, lehengoratzeko lanak egiteko teknikak azaldu ditu; adibidez, bioingeniaritza, espezie exotikoak ezabatzea, etab.
- **Jose Ardaizek** azaldu du jarduketa batzuk egin direla, kontserbazio lanek (oztopoak kentzea) kolakarengan, itsas lanproiarengan eta izokinarengan zer ondorio izan duten jakiteko, eta zer-nolako eraginkortasuna duten arrainendako pasabideek oztopo jakin batzuetan. Era berean, Bidasoko izokin populazioaren bilakaeraren jarraipena egiteko Programak azpimarratu ditu. Mendi Zaintzaren lanari esker, eta Departamenduko zein GAN-NIKeko teknikariek lagunduta, lan batzuk egiten dira, hala nola ibaian gora doazen izokin ugaltzaileen kontrola eta haien ugalketaren jarraipena egitea, populazio gazteen kontrola, eta arrainendako pasabideen funtzionamenduaren ebaluazioa. Era berean, bertako izokinkumeekin eta izokin gazteekin egiten diren birpopulaketak azaldu ditu, populazioa sendotzeko, Oronoz Mugairiko arrain-haztegiako ekoizpenari esker.
- **Miguel Elóseguk** azaldu du zer ekintza egiten ari diren bisoi amerikarraren arazoari aurre egiteko. Espezie inbaditzaile horrek are gehiago larriagotu du bisoi europarraren egoera latza (galtzeko zorian dago). Azaldu du, halaber, nola aztertzen ari diren muturluze piriniotarraren populazioak. Batasunaren intereseko espeziea da eta gainbehera azkarra izan du banaketa eremu guztian; nabarmendu du zer ebaluazio ekintza egiten diren populazio gune ezagunak kontserbatzeko, eta zer errekerimendu ekologiko dituen espezieak, eta era berean, zein den habitataren kontserbazio egoera.





Irekibai

Interreg
POCTEFA
H2Ogurea



Partaidetza prozesua (Proiektuak: **LIFE-IREKIBAI** eta **H2Ogurea**). Ana Varela. GAN-NIK

- **Ana Varelak** azaldu du zabaldu egin dela LIFE IREKIBAI proiektuaren herritar partaidetza H2Ogurea mugaz gaindiko proiektura, zeinak mugaz gaindiko ibaiak koordinaziopean kudeatzea baitu helburu: Bidasoa, Urdazuri eta Urumea. Erabakia hartu da, kontuan hartuta bi proiektuen xedea dela ibaien kudeaketa hobetzea, eta biak ere jarduketa eremu berean ari direla lanean, Nafarroan (Kantauriko arroak); beraz, erabat dira osagarriak. Helburuak, partaidetza mailak eta partaidetza prozesuaren faseak azaldu ditu gainetik. Gainera, eta Baztango Udalerriko uholdeen kontrako Udal Jarduketarako Planari buruzko kasu zehatzari dagokionez (prestaturia dagoena eta udalaren eskumenekoa), aurreratu du partaidetza publikorako prozesuaren bidez landuko direla aipatu Planaren neurri batzuk, eta tokiko bilerak egiten ari direla plana ezartzeko, jendearen eta herrien autobabesa sustatze aldera, uholdeek dakartzaten arrisku eta mehatxuei aurre egiteko. Gogoratu du [Irekibairen webean](#) ikusgai dagoela dokumentazio guztia bai LIFE IREKIBAI proiektuaz, bai Partaidetza Publikorako prozesuaz.

Eztabaida hasi da, eta hauek izan dira gai, galdera eta iradokizun nagusiak:

Elizondoko Txokotoko presa

- Txokotoko presa eraisteko aukeraz galdetu dute. César Pérezek erantzun du huraxe eraisteak Elizondoko uholde arriskua hobetuko lukeela, oro har. Baina, ñabartu du eraispenak itzulera-denbora txikiko uholdeak konponduko lituzkeela (5 edo 10 urteko uholdeak); eta ez dela konponbidea itzulera-denbora handiagoetarako (adibidez, 2014ko uholdea). Erantsi du Nafarroako Gobernua ez dagoela itxita neurri hori hartzera, inork eskatzen badu.

Biltontzi berria Urdazubini

- Galdetu dute ea Urdazubini egin nahi den ur biltontzian bertzelako erabilerak ere izan ote litezkeen. Urdazubiko alkateak erantzun du aukera hori aurreikusi egin litekeela.

Oronoz Mugairiko zentrala

- Galdetu dute ea noiz den Oronoz Mugairiko zentralaren iraungitze data, eta adierazi da 2013an iraungi zela. Baieztatu da, halaber, alde batetik bestera dabilen informazioa; hots, Iberdrolak minizentral hori beste bi minizentralekin batera sorta berean saldu duela.

Iturengo arrain-haztegi zaharreko presaren eraispena

- Iturengo arrain-haztegi zaharreko presaren eraispenari dagokionez, gogoratu da uda honetan eraistea aurreikusia dagoela, eta Nekane Vizcayk argitu du Nafarroako Gobernuak Ondareak arrain-haztegi horretako instalazioak saltzean, salmentan ez zegoela sartua LIFE IREKIBAIren bidez 2017 honetan eraitsi nahi den presa.

CHCren emari ekologikoen hitzarmena

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Emarien gaineko Hitzarmenean darabilen gaiari buruzko galderari dagokionez, azaldu da dokumentazio guztia Konfederazio horretako webean dagoela ikusgai: <https://www.chcantabrico.es/index.php/es/actuaciones/planificacionhidrologica/planes-hidrologicos-2009-2015/implantacion-del-regimen-de-caudales-ecologicos/implantacion-del-regimen-de-caudales-ecologicos-dhc-oriental>. Erran da, halaber, hurrengo bileretan saiatuko gara Konfederazioaren beraren azalpen zehatzak lortzen gai horri buruz.